

HIZKUNTZA PROIEKTUA



**LARDIZABAL
HERRI ESKOLA
2023-2024**

AURKIBIDEA:

- 1. Ikastetxearen helburu orokorrak**
 - 1.1 Sarrera**
 - 1.2 Ikastetxearen hizkuntza helburuak**

- 2. Esparru instituzionala eta hizkuntzen erabilera**
 - 2.1 Eskola Kontseilua**
 - 2.2 Funtzionamendu organoak**
 - 2.3 Guraso Elkarteak eta gurasoekiko harremanak**
 - 2.4 Baliabideak**
 - 2.5 Hizkuntza paisaia**
 - 2.6 Gelaz kanpoko esparrua**

- 3. Hizkuntzen esparru didaktiko-metodologikoa**
 - 3.1 Ikasleak taldekatzeko irizpideak**
 - 3.2 Hizkuntza bakoitzaren orduak eta arloak**
 - 3.3 Hezkuntza premia bereziko ikasleak**
 - 3.4 Irakurketa-idazketa**
 - 3.5 Hizkuntza hizkuntzakoak ez diren arloetan**
 - 3.6 Hizkuntzen didaktika hizkuntza saioetan**

- 4. ERANSKINA: Euskara eta Kultur-artekotasuna proiektuan adostutako formatoak (komunikazio egoerak)**

1. IKASTETXEAREN HELBURU OROKORRAK

1.1. Sarrera

Hizkuntzak betidanik izan du garrantzi handia Lardizabal Eskolan. Izan ere, euskaraz irakasteaz gain, euskara irakastea eta bultzatzea izan da gure helburu nagusietako bat. Are gehiago, testuinguru eleanitz, kultur anitz eta globalizatu batean bizi garen honetan. Oso kontuan dugu baita ere Zaldibia euskararen arnagunea dela, eta horren araberako antolaketa eta neurriak izango ditugula eskolan. Kontutan dugu baita ere, azken urteetan asko ugartu direla familietako ama hizkuntza ezberdinak, hizkuntza aberastasuna handitu da.

Hau ikusirik, beharrezkoa da gure lana eta gure harremanak gidatuko dituen hizkuntza proiektu eguneratu bat izatea.

Lardizabalek formazio euskalduna eman nahi die ikasleei, euskara ongi menderatuz, eta euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta indartzearekin konpromisoa hartuz. Eskolak, Hezkuntzaren eta Hizkuntz Proiektuaren ardatza euskara duela, pertsona eleaniztunak hezi nahi ditu; euskaraz gain, gaztelanian eta ingelesean eraginkortasunez komunikatzeko gai diren ikasleak prestatuz, eta aldi berean norberaren ama hizkuntza baloratzuz.

Lardizabal Eskolan hezitako ikasleek haien heziketa-prozesuaren bukaeran hizkuntza maila egoki bat menperatzea lortu nahi da. Oinarrizko Hezkuntzaren bukaeran, Curriculum dekretu berriak (Irteera profilak) dioen bezala.

2021-2022 ikasturtean "Euskara eta Kulturartekotasuna" proiektua abiatu zen gure eskolan, gerora beste hianbat eskoletara zabaldu zena. Eragile ezberdinak izan dira proiektu honetako partaide: Eskolako irakasleak, gurasoak, Guraso Elkarteak, udala, UEMA, HUHEZI eta Etxekonekoak Elkarteak. Euskara eta Kultur-artekotasunaren helburuak

izan dira: Euskararen arnasgunea den herri eta eskolan, euskaraz bizitzen jarraitzea; familia guztiekiko harremana, komunikazioa eta partehartzea bermatzea; Kultur-arteko harremanak eraikitzea; harreman eta hizkuntza estrategiak garatzea (formatoak); garatutako estrategia horiek komunikatzea, partekatu, aplikatu eta aztertzea; eta antzeko egoeretan aplikagarri izatea.

Hasieratik hona egin den ibilbidearen jarraipena egin daiteke eskolako webguneko albisteetan, esteka honetan:

<https://lardizabal.eus/eu/etiketa/euskara-eta-kulturartekotasuna>

1.2. Ikastetxeko hizkuntza helburuak

1. Ikasle eleanitzak formatzea. Curriculum berriak dioen Irteera profilerara heldu ahal izatea ikasle guztiak.

2. Eskola komunitateko bizitza eta harremanak euskaraz izan daitezen sustatzea.

3. Euskaldunak ez diren familiak euskara eta euskal kulturara erakartzea, eta denekin komunikazioa bermatzea.

4. Kultur-artekotasuna lantzea eta eskola komunitateko hizkuntza aberastasunari balioa ematea

2. ESPARRU INSTITUZIONALA ETA HIZKUNTZEN ERABILERA

2.1. Ordezkaritza Organo Gorena

"Ordezkaritza Organo Gorenako kideak eta hizkuntza"

Eskola kontseilua zuzendaritza taldeak, irakasle ordezkariak, udaletxeko ordezkariak eta eskolako langile ez irakasle batek osatzen dute. Eskola kontseiluko partaideen gehiengoa elebiduna izaten da, maiz %100a. Hori dela eta, bilera eta komunikazioa euskaraz ematen da, eta ulertzen ez duenari aldibereko itzulpena egiten zaio, xuxurlatuz edo TELEGRAM bidez.

"Sortzen diren dokumentuak"

Eskolako dokumentu guztiak, aktak barne, euskaraz jasotzen dira. Salbuespen bakarra deialdiena izan liteke: guraso ez euskaldunei deialdi elebiduna egiten zaie emailez baldin bada, eta TELEGRAM bidez bada aplikazioak berak ematen du itzultzeko aukera.

2.2. Funtzionamendu organoak: zuzendaritza, klaustroa, irakasle bilerak...

"Funtzionamendu organoetako kideak eta hizkuntza"

Irakasleen arteko bilera eta foroetan euskara da erabiltzen den hizkuntza. Gurasoak parte hartzen duten organoen kasuetan (batzorde iraunkorra, ekonomikoa, elkarbizitza batzordea...) gerta daiteke noizbehinka partaideren bat euskalduna ez izatea. Hala gertatzen denean, xuxurlatuz edo TELEGRAM bidez egiten da itzulpena.

"Sortzen diren dokumentuak"

Lardizabal Herri Eskolan sortzen den dokumentazio eta material guztia euskaraz jasotzen da.

"Hizkuntzaren kalitatea"

Hizkuntzaren kalitatea zaintze aldera, eskolan sortzen diren idatziak partaide guztien eskuetan uzten dira zuzenketak egin ditzaten. Dokumentu eta material idatziak errebisatu, zuzenketak proposatu, eta bertsio berriak berridazten dira hobekuntza lortzearren.

2.3. Guraso Elkarteak eta gurasoekiko harremanak

"Guraso Elkarteak bidaltzen dituen idatziak"

Gurasoen Elkarteak ikastetxera eta kanpora bidaltzen dituen idatziak euskaraz izaten dira. TELEGRAM bidez zabaltzen dira, aplikazioaren

itzulpenak egiteko aukera baliatzeko. Modu horretara norberak berak hautatutako hizkuntzara itzulita irakurri dezake.

"Gurasoei bidaltzen zaizkien idatziak"

Eskolaren kasuan, euskaraz dakiten gurasoei euskaraz bidaltzen zaizkie idatziak, eta ez dakitenei elebidunez bidaltzen ziren emailez. TELEGRAM erabiltzen hasi ginenetik euskaraz bidaltzen dira, eta aplikazioaren bidez itzulita irakurri daitezke.

"Gurasoen bileretan erabiltzen den hizkuntza"

Gurasoen bilerak euskaraz antolatzen ditugu, eta aurkezpena euskaraz egoten da. Aldi bereko itzulpena egiten da TELEGRAM bidez euskara ez dakiten gurasoentzat. Bileraren ondoren oinarrizko informazioa bidaltzen da familietara TELEGRAM bidez mezu idatzi batean, eta norberak nahi duen hizkuntza irakurri dezake mezu hori. Bileraren bigarren zatian, talde txikitako jardueran, hizkuntza ezberdinak erabiltzen dira.

"Ikasle eta gurasoentzat antolatzen diren ekintzak"

Ikasle eta gurasoentzat antolatzen diren ekintzak euskaraz bideratzen dira %100ean. Hala ere, ekitaldietako abesti eta dantzetan beste edozein hizkuntzetako kantak erabili daitezke, nahiz eta beti euskara izango den hizkuntza nagusia. Honela, errumanieraz, urdueraz, arabieraz, italieraz, amazigh-eran, gaztelaniaz, ingelesez edo beste edozein hizkuntzetan ikasitako kanten emanaldia ere egon daiteke. Urtean behin argitaratzen den aldizkariari dagokionez, 3 hizkuntzek (euskara, gaztelera eta ingelesa) dute presentzia; eta eskolako beste ama hizkuntzak ere egon daitezke. Hala ere, euskararen nagusitasuna azpimarratu nahi da eta horregatik, euskaraz idazten diren testu kopurua handiagoa da (aldizkariaren % 80)

"Gurasoekiko harremanak"

Gurasoekiko harremana, ahal den neurrian, euskaraz egiten da. Euskaraz ez dakitenekin gaztelaniaz aritzen gara, eta gaztelaniaz ez dakitenekin beste hizkuntza hori dakien guraso baten laguntzaz eta Hezkuntza Sailaren itzultzaile zerbitzuarekin.

Baliabideak

"Ikastetxeko baliabideak hautatzeko irizpideak"

Ikastetxeko material didaktiko orokorra (liburutegia, laborategia...), eta ikastetxean erabiltzen diren gainontzeko baliabideak hautatzeko irizpide garrantzitsua da hizkuntza. Baliabidea euskara, gaztelania edo ingelesa hizkuntza lantzeko bada, noski, hizkuntza horretan sortutako materiala aukeratzeko dugu. Beste arloetako materialak euskaraz izango dira. Baliabidearen hizkuntzak ez badu eragiten bere erabilgarritasunean, beste irizpide batzuk ere hartzen ditugu kontuan, normalean didaktikoak; eta ahal dela euskarako bertsioan.

"Ikasgeletarako baliabideak hautatzeko irizpideak"

Ikasgeletan arlo guztietan erabiltzen den material didaktikoa eta gainontzeko baliabideak hautatzeko, ikastetxeko materiala aukeratzeko dugunean bezala jokatzeko dugu

"Beste hizkuntzetan sortutako material didaktikoak"

Testu liburuez gain ikasleek eskuragarri dute irakasleek beste hizkuntzetan sortutako material didaktikoak, hala nola: hiztegiak, ipuinak, DVDak... (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, arabieraz...) Baina batez ere internetek ematen dizkigun aukerak, bertan edozein hizkuntzetan topatzen baititugu informazio eta jolasak.

2.4. Hizkuntza Paisaia

"Hizkuntzen presentzia"

Euskara nagusitzen da pasabideetan, geletan eta kanpoaldean, baina hala ere, beste hizkuntza batzuen presentzia areagotzen ari da azken urteotan. Gaztelerarako joera ere handitu egin da ikasle batzuetan.

"Hizkuntza agerrarazteko irizpideak"

Euskarak atzera pausoak egin ez ditzan erne mantentzeko beharra ikusten dugu guraso eta irakasleok. Gaia mahai gainean maiz jartzen da, eta ekintza desberdinak proposatu eta betetzen ditugu.

"Hizkuntza desberdinen lekua eskolan: irakasten direnak eta etorkinenak"

Ikasten diren hiru hizkuntzek dute bere lekua eskolan. Gaztelania eta ingelesaren lekua mugatua da, momentu eta leku jakinak dituzte, gure harremanak euskaraz izan daitezen lan egiten dugu.

Bestalde, ikasle etorkinen hizkuntzen lekua, beraien geletara eta HIPI gelara mugatzen da. Ikasle etorkinen harrera egiten dugunean, beraien jatorriari buruzko informazioa, kultura eta hizkuntza jasotzen dira gelan, taldekideekin. Era berean, gure hizkuntza ikasi bitartean, duten komunikazio beharrari, eta guk eman beharreko harrerari erantzunez, beraien hizkuntzetan aritzea onartzen eta baloratzen dugu.

2.5. Gelaz kanpoko esparrua

"Gelaz kanpo erabiltzen diren hizkuntzak"

Euskara nagusitzen da jolastokian, jangelan eta eskolaz kanpoko ekintzetan, baina hala ere, beste hizkuntza batzuen presentzia

areagotzen ari da azken urteotan. Gazteleraren erabileraren inguruko kezka handitzen ari da.

"Kanpo harremanak"

Kanpo harremanetarako Euskara erabiltzen du ikastetxeak ahal den guztietan. Harremanetan daukagun hori euskalduna ezpada, gaztelania erabiltzen da, baina inoiz ez euskaraz aritzeko aukera dagoenean.

"Egoera hori hobetzeko aurreikuspenak"

Ikasleei dagokienez, euskara ez den hizkuntzan ari direnean euskaraz aritzea bultzatuko ditugu ereduak emanez.

Honez gain, euskararen erabilera sustatzeko ekintzak burutuko dira ikasturtean zehar (euskararen eguna, patioko jolasak...)

Bestalde, familiei dagokienez, euskal zaletasuna bultzatzeko ekintzak antolatuko dira, hitzaldiak besteak beste.

2.6. Euskararen erabilera indartzeko zenbait ekimen

UEMAk irakasleei formazio saio bat ematen die urtero, euskara egoera soziolinguistikoa azalduz eta euskara sustatzeko estrategien inguruan. Ikasleekin ere bi tailer egiten ditu UEMAk, Lehen Hezkuntzako bigarren mailan eta 6. mailan.

Lehen Hezkuntzako ikasleei Euskararen erabileran indartzeko errefortzu saioak antolatzen dira duela ikasturte batzuetatik hona. Udalaren bidez egiten den ekimena da, udalak finantziatuta. Bi astean behin ahozotasuna lantzeko tailer edo jolasak egiten dira ikasleekin.

3. HIZKUNTZEN ESPARRU

DIDAKTIKO – METODOLOGIKOA

3.1. Ikasleak taldekatzeko irizpideak

"Taldekatzeko irizpideak"

Gure eskola lerro bakarrekoa izan da, baina azken urte hauetako matrikulazio igoera dela eta, maila askotan bi talde ditugu une honetan. Taldeak orekatuak izatea bilatzen da. Adin ezberdinetako haurrak elkarrekin egotea ere sustatzen da (mugimendu autonomoa, arte tailerrak, talde elkar eragileak ...)

"Ama hizkuntza"

Ama hizkuntza kontuan hartzen dugu haurraren beharrak aztertzerakoan, baina ez da taldekatzean erabakitzaile izaten.

"Sisteman sartzen diren ikasle berriak eta Harrera Plana"

Sisteman sartzen diren ikasle berriei dagokienez, badago ikastetxean haiei zuzendutako Harrera Plana. Hizkuntzaren trataera dokumentu horretako atal garrantzitsu bat da eta bertan ematen diren irizpideak ezagutzea ezinbestekoa da.

3.2. Hizkuntza bakoitzaren orduak eta arloak

"Hizkuntza bakoitzari ematen zaizkion ordu kopurua"

Hizkuntza bakoitzari eskaintzen zaizkion orduak Curriculum dekretuak adierazten dituenak dira.

3.3. Hezkuntza premia bereziko ikasleak

"Hezkuntza premia bereziko ikasleak eta hizkuntza"

Hezkuntza premia bereziko ikasleek, beharren arabera, laguntza mota desberdinak jasotzen dituzte. Lehenik eta behin, haurraren beharrak aztertzen ditugu, eta ondoren, curriculuma egokitzen dugu.

Hizkuntzari dagokionez, komunikazioa lehenesten da. Haurrari komunikazio erreminta hobetzen lagundu behar diogu, eta gaitasunen arabera helburuak markatuko ditugu, eskolan irakasten diren hiru hizkuntzetan.

3.4. Irakurketa-idazketa

"Zein hizkuntzatan egiten den prozesua"

Zaldibian, haurrak 2 edo 3 urterekin eskolatzen dira normalean, eta euskara da gure harremanetarako hizkuntza. Beraz, Haur eta Lehen Hezkuntzan, irakurketa eta idazketa prozesua euskaraz lantzen da.

"Erabiltzen den metodologia, nola lantzen da"

Metodoari buruz, esan behar, lehenengo baldintza haurraren garapena errespetatzea dela. Haur bakoitzak bere erritmoa du, eta nahiz eta irakurketa eta idazketa Haur Hezkuntzatik lantzen hasi, haur bakoitzak erritmo desberdina eramango du, eta hori ez da arazo bilakatuko. Metodo bat baino ikuspegi bat da eskolan lehenesten dena. Konstruktibismoaren ikuspegitik irakur idazketaren psikogenesia kontuan izaten da.

Helburu nagusia komunikazio konpetentzia garatzea da; beti ere, hizkuntza gaitasun desberdinak, ahozkoak zein idatzizkoak, modu integratu eta sistematikoan landuz.

"Erabiltzen den materiala"

Haur Hezkuntza Mugimendu Autonomoa deituriko antolaketa dago. Lehen Hezkuntzako maila batzuetan, HH-koa jarraituz, arlo ezberdinen inguruko EKOSISTEMAK (gelak daude). Irakasleek antolaketa honi dagozkion material ez berdinak aukeratzeko, bilatzeko eta prestatzeko dituzte.

Azken ikasturte hauetan Lehen Hezkuntzan ere ikasleek ia ez dute testu libururik erabiltzen. Arlo gehienetan irakasleak izaten du liburuak gida moduan, ez ikasle bakoitzak. Dena den, Curriculum Dekretu berria dela eta, hausnarketa, eguneratze eta berritze fasean gaude.

"Irakurketa plana"

Ikastetxeak badu bere irakurketa plana, errebisatzen eta eguneratzen dena. Programazioetan ere txertatuta geratzen da.

"Testu motak"

Ikasleek testu-mota guztiak dituzte eskura irakurketa-idazketa prozesu honetan. Horrela, guztiak ezagutu eta sortzeko aukera izango dute Lardizabal eskolan ematen dituzten urteetan. Testuen sortzea etengabea da, erabiltzen dugun materialak horrela eskatzen baitu. Gainera, hauen argitaratzea egiten da eskolako aldizkarian, ikas egoeretan, hizkuntza ekosisteman ...

"Egoera hori hobetzeko aurreikuspenak"

Testu mota desberdinek Lardizabal Aldizkarian lekua izan dezaten, aldizkariko testuen banaketa ikasturte hasieran errebisatzen dugu, eta gela bakoitzaren lana zehazten dugu. Horrekin batera eskolak euskara sustatzeko duen konpromisoa aintzat hartuz, euskaraz idatzitako testuek izango dute leku handiena.

Gainera, ebaluazioaren etekina memorian jasotzen dugu, beharra

ikusten bada, Hobekuntza Planean eta Urteko Planean txertatzeko.

3.5. Hizkuntza beste arloetan

"Hizkuntzaren garrantzia beste arloetan"

Hizkuntzakoak ez diren arloetan hizkuntzei eta trebeziei (ahozko adierazpena, ahozko ulermena, elkarreragina, adierazpen idatzia eta idatziaren ulermena) garrantzia handia ematen zaie. Edozein arloren lanketak, ahozko nahiz idatzizko komunikazioa eskatzen du, eta berdin, arloren lanketak hizkuntzari hiztegi teknikoa, eta egitura desberdinak erantsiko dizkio.

"Irakasleen arteko koordinazioa"

Hizkuntzakoak ez badira ere, hizkuntzak lantzeko irakasleen arteko koordinaziorik badago. Gure eskola txikia izateak klaustro osoaren arteko formazio saioak, elkar-jartzeak, eta koordinazio bilerak egitea ahalbidetzen du.

"Hizkuntza gaitasunen lorpena"

Ikasleek, curriculumak deskribatzen dituen hizkuntza gaitasunak betetzen dituzte, normalean, arlo horietan. Hala ere, azken urteotan, eskolako hizkuntza mapa aldatu da, eta beraz egoera berrietara egokitzen ari gara.

3.6. Hizkuntzen didaktika hizkuntza saioetan

"Hizkuntzen planteamendu metodologikoa"

Hizkuntza guztietan planteamendu metodologikoa komunikazioa bultzatze aldera bideratzen da. Komunikazioak egiten du erabilgarri hizkuntza, eta hau izango da abiapuntua.

"Koordinazioa eta adostasuna"

Hizkuntzak ikasteko eta irakasteko irakasleen koordinazioa derrigorrezkoa dela pentsatzen dugu, beraz, ziklo, GIT, batzorde pedagogiko, eta beharren arabera antolatutako bilerek ahalbidetzen dute adostutako ezaugarri metodologikoak aurrera joatea.

"Ahozkotasuna"

Hizkuntza komunikatzeko tresna eraginkorra izan dadin, ahazkotasunak leku garrantzitsua hartzen du gure helburuen artean. Ahazkotasuna da lehenengo urratsa hizkuntza ezagutzeko, eta ondoren irakurketa eta idazketan gaitasunak garatzeko.

"Curriculumak deskribatzen dituen hizkuntza gaitasunen lorpena"

Curriculumak deskribatzen dituen hizkuntza gaitasunak ongi betetzen ditu ikaslearen gehiengoak. Hala ere, baditugu arrazoi desberdinak direla eta zailtasunak dituzten ikasleak, eta hauen hizkuntza gaitasunak garatzen laguntzeko egin beharreko egokitzapenak egiten dira.

"Komunikazio proiektuetan oinarritutako metodologia eta Hizkuntzen Trataera Bateratua"

Hizkuntzen Trataera Bateratuan oinarritzen gara. Euskara eta gaztelaniako gaiak, inguruneekin batera lotuak doaz, bata bestearen osagarri. Batean ikasitako bestera transferitzen da.

4. ERANSKINA Euskara eta Kultur-artekotasuna proiektuan adostutako formatoak (komunikazio egoerak)

Formatuak

Euskara, kulturartekotasuna eta komunikazioa
Zaldibiako hezkuntza komunitatean

2022ko ekaina

Formatuen azken bertsioa

HIZKUNTZA TRATAERA HEZKUNTZA KOMUNITATE EUSKALDUN ETA KULTURANIZTUNEAN

1. FORMATUA - JARDUERA

BILERA ETA JARDUERETAN ALDI BEREKO ITZULPENA



HELBURUAK

- Jarduera euskaraz egitea.
- Euskaraz ez dakiten pertsonak euskaraz esandakoaren oinarritzko itzulpena jasotzea.
- Informazioa, komunikazioa eta parte hartzea ziurtatzea.



BI AUKERA

Telegram kanala	○ Bileran norbaitek egiten du itzulpena Telegram kanalaren bidez eta euskaraz ez dakitenek haien telefonoan jasotzen dute.
Xuxurlatzailea	○ Euskalduna ez den pertsona bakoitzaren ondoan jartzen den laguntzailea xuxurlaka aldibereko itzulpena egiteko.



ABANTAILAK

- Parte-hartzaile guztiak batera daude.
- Ohiko bileraren denboran egin daiteke.
- Telegram kanalaren nahiz xuxurlariaren bidez, itzultzailea nor izango den parte-hartzaileen artean antola daiteke.
- Dohaineko baliabideak dira.
- Telegram kanalaren bidez pertsona batek itzulpena egiten du pertsona askorentzat; ez da aldamenean egon behar, eta besteek gutxiago entzuten dute.





KONTUAN HARTZEKOAK

- Telegram kanala instalatuta egon behar da telefonoetan.
- Bakoitzak bere aurikularrak ekarriko ditu itzulpena bere telefonotik entzuteko. Baina irakaslearen mugikorrek prestatuta eta aurikular batzuk bilerara ekar daitezke, badaezpada.
- Aldez aurretik pentsatuta eramango da nork egingo duen itzulpena (pertsonek bat baino gehiago izan daitezke).
- Azalpena eta itzulpena irakasleek egitekotan, bilera elkarrekin presta dezakete, beraz, gaiak eta diskurtsoa aldez aurretik ados daitezke.
- Esplizitatuko da ez dela itzulpen “profesionala” eta bere eginkizuna ez da erraza. Itzulpena ez da “perfektua” izango.
- Noizean behin galdetuko da ea ondo entzuten eta ulertzen ari diren.
- Itzultzailea gelan bertan egon daiteke, eta baxu hitz egingo du (baxu hitz eginda ere, ondo entzuten da aurikularretatik). Saiatuko da besteengandik hurbilegi ez egoten.
- Euskaraz ez dakitenek parte hartzen dutenean, aurreikusten da gaztelaniaz egingo dutela nagusiki.
- Tresnak erabiltzen badira, kontuan hartuko da denbora-tarte bat bilera hasi aurretik prestatzeko. Saioaren hasieran Telegramen eta aurikularren erabilera adostu eta arautu behar denez, bilera beranduago has daiteke, edo arazo teknikoak egon daitezke. Horrek bileraren iraupenean eragin dezake, batez ere erabiltzen den lehen aldietan.
- Tresnak erabiltzeko arauak prestatu daitezke bilerara datozenek eskura izan ditzaten. Argibide horiek euskaraz eta nagusiki gaztelaniaz eman behar dira, ahoz eta idatziz. Komeni da pertsona bat egotea zailtasunak dituztenei berehala laguntzeko.
- Aurreikusten da itzulpena euskara-gaztelania izango dela. Beste hizkuntzetan ere posible da, baldin eta horretarako pertsonak aurkitzen badira.
- Xuxurlariak erabiltzen badira, gurasoen ala irakasleen artean antola daitezke Bide batez, balia daiteke gurasoen arteko harremana sustatzeko. Baina kontuan izan, besteak beste, alderdi kulturalak (pertsonek arteko distantzia, kasu) edo generoaren aldagaia. Kontuan izan, halaber, gurasoei bileran entzutea eta parte hartzea interesatu ahal zaiela batez ere, eta xuxurlari lana traba izan daiteke.

HIZKUNTZA TRATAERA HEZKUNTZA KOMUNITATE EUSKALDUN ETA KULTURANIZTUNEAN

2. FORMATUA - JARDUERA



EKAINEKO BILERA GURASO BERRIEKIN

EZAUGARRIAK



- o Gurasoekin lehenengo bilera da eta eskolako informazioa partekatuko da. Bileran ikastetxeko irizpide linguistikoak labur partekatuko dira eta erabiliko dira.

ABANTAILAK



- o Ikasturtea hasten denean gurasoak proiektuan kokatuta eta tresnak erabiltzeko prestatuta egongo dira.
- o Ohiko denboran egin daiteke bilera.

HELBURUA



- o Guraso berriekin eskolako informazioa partekatzea.
- o Ikastetxeko irizpide linguistikoekin berri ematea eta erabiltzen hasia: markoaren zertzelada batzuk azaldu eta aldi bereko itzulpena erabili.
- o Gurasoen arteko harremana sustatzea.

KONTUAN HARTZEKOAK



- o Azalpen linguistikoa laburra izango da. Proiektuaren gaineko triptikoa eman ahal zaie gurasoei.
- o Gurasoei azalduko zaie irailan bilera bat egingo dela marko linguistikoaren inguruan eta eskatuko zaie bilera horretara joateko.
- o Lehenengo eta hirugarren formatuen oharrak kontuan hartu bilera hau prestatzeko orduan.
- o Posible da talde-dinamika bat gurasoen artean planteatzea, aldibereko itzulpenarekin aurretik den denbora erabilia. (Aztartu abantailak eta desabantailak, oraindik markoren inguruko bilerara ez direlako joan).

HIZKUNTZA TRATAERA HEZKUNTZA KOMUNITATE EUSKALDUN ETA KULTURANIZTUNEAN

3. FORMATUA - JARDUERA

MARKO LINGUISTIKOA PARTEKATZEKO AZALPENA GURASO BERRIENTZAT ETA IRAKASLE BERRIENTZAT

EZAUGARRIAK

- o Egoera eta eskolaren hautu linguistikoa jasotzen duen azalpena da.
- o Eduki soziolinguistikoa oinarritzekoak eta errazak izango dira.
- o Tonua zainduko da: positiboa, lagunkoia, ez ezer leporatzeko ez errudun sentiarazteko.
- o Ikasturte hasiera guztietan egin beharko litzateke.
- o Elkartu ahal dira saio berean guraso berriak, aurreko saioetan egon ez direnak eta irakasle berriak.

ABANTAILAK

- o Hartzaileak –guraso etorkinak zein euskaldunak eta irakasleak– elkarrekin izatea.
- o Itzulpen sistema erabiliz gero, guraso guztiak batera egon daitezke, eta elkarrizketa konpartitu dezakete.

HELBURUA

- o Eskolako gurasoekin eta irakasleekin euskararen trataeraz gogoeta egitea.
- o Gurasoei eta irakasleei egoera ulertzeko datu eta irizpide batzuk ematea.
- o Euskararen aldeko hautua eta garrantzia azpimarratzea.
- o Eskolako hizkuntza guztiekin adeitasuna erakustea.

KONTUAN HARTZEKOAK

- o Eskolako kide batek eman dezake azalpen hau.
- o Gurasoak bilerara erakartzeko estrategiak erabiliko dira: zuzenean gonbidatu, umeen zaintza zerbitzua prestatu...
- o Parte-hartzaileen testigantzak, iritziak... jasotzeko aukera egongo da. Batzuk deserosoak izan daitezke eta elkarrizketa kudeatu beharko da.
- o Komeni da denbora eskaintzea talde dinamika bat egiteko eta pertsonen ahotsak entzuteko, beraz, 2 orduko saioa komeni da.
- o Unea izango da eskolako hizkuntzaren garrantziaz hitz egiteaz gain, etxeko hizkuntzen garrantzia azpimarratzeko.
- o Guraso euskaldun guztiek ume guztiekin euskaraz arituko direla landuko da.
- o Jarduera hau harrera planaren barruan egongo da, irakasleentzat zein gurasoentzat.

4. FORMATUA - JARDUERA



GURASOekin IKASTURTE HASIERAKO BILERAKO
GURASOekin IKASTURTE ERDIKO BILERAKO



EZAUGARRIAK - 2 FASEKO BILERAKO

1. Fasea 30-40 minutu	<ul style="list-style-type: none">○ Aldi bereko itzulpenarekin denak gela berean egongo dira. Euskaraz eta aldi bereko itzulpenarekin.○ Telegram kanala erabiltzea hobesten da. Agian beste hizkuntzaren bateko xuxurlatzailea, gurasoren batek gaztelania ere ez badaki.○ Edukia: 1. agurra; 2. bileraren egituraren arrazoa; 3. ikasturtearen inguruko informazioa.
2. Fasea 30-40 minutu	<ul style="list-style-type: none">○ Guraso guztiak elkarrekin gela berean. Gaztelaniaz hitz egingo da, baina euskara beti presente.○ Dinamika bat egin gurasoak taldeka aritzeko:<ul style="list-style-type: none">1. Dinamika: tutorearen kontsigna (galdera(k) + taldeka jarduera + denen artean partekatzea + ondorioak.2. Bileraren balorazioa egin. Agurra.



HELBURUA

- Gurasoei ikasturteko irizpide, baldintza eta jardueren berri ematea.
- Gurasoen arteko elkar ezagutza, harremana eta jarduera konpartituak sustatzea.



ABANTAILAK

- Parte-hartzaile guztiak batera daude.
- Ohiko bileraren denboran egin daiteke, ez da luzeagoa izango.
- Gurasoen arteko elkar ezagutza, harremana edota gogoeta susta ditzake.
- Gurasoen parte izateko sentimendua ere susta dezake, eta ez hartzaile hutsaren rola.



EZAUGARRIAK - 2 FASEKO BILERA

1. Fasea	<ul style="list-style-type: none">○ Bilerararen egitura azaldu. Hizkuntza-markoa aurkezten duen triptikoa eman eta labur azaldu. Gurasoei, beraien seme-alaben gelak aurkeztu; seme-alabak non esertzen diren, zein den beraien egunerokoa...○ Umeek egindako gonbidapena edota oparia (marraskia, mezua...) gurasoek jaso. Gurasoei eskatu zerbait uzteko beraien seme-alabentzat (etorri ez diren gurasoen hutsuneak umeekin kudeatu).○ PPTa laburtu eta txostena banatu informazio praktikoarekin.○ Seme-alabei klasea ematen dieten irakasle guztien argazkiak erakutsi.○ PPTko lehen diapositiban, "ongi etorri" mezua taldean ditugun hizkuntza guztietan idatzi daiteke.○ Guraso elkartearen ere aurkeztu daiteke bileretan (txostenean, azalpen labur batez...).
2. Fasea	<ul style="list-style-type: none">○ Talde txikitan dinamika bat egin: gai baten inguruan 1-2-3 galdera egin eta 4-5 pertsonako taldetan hausnartu... Galdera esanguratsuak, ekarpena egiteko.○ Taldeetan esandakoa talde handian partekatu eta jaso.○ Familiei ikastetxea erakutsi dakieke.○ Guraso taldearen argazkia atera daiteke bileraren bukaeran eta gelako atean jarri.○ ...



KONTUAN HARTZEKOAK

- o Formatu hau urteko planean txertatuko da eta irakasle berriei harrera prozesuan azalduko zaie.
- o Ikasturte hasieran klaustroan partekatu eta landuko da formatu hau.
- o Bilera bi tutoreren artean egingo da. Tutore horiek ez dira Telegramez eta itzulpenaz arduratuko. Beste batek egingo du.
- o Hizkuntza-trataeraren gaineko triptikoa euskaraz edo gaztelaniaz banatuko da. Beste hizkuntza batean?
- o Bigarren faseko dinamikari begira, taldekatzeko modua aldez aurretik pentsatu daiteke. Aurrez guraso “konplizeak” identifikatu eta talde bakoitzean koka daitezke.
- o Gurasoak ez daude ohituta horrelako dinamiketara, parte-hartzea dinamizatu eta esanguratsu egin behar da.
- o Talde txikietan gaztelania presente egon daiteke, eta hori esan egin behar da. Helburu nagusia elkarrekin hitz egitea da, baina elkarri errespetatu behar zaio euskaraz zein gaztelaniaz hitz egitea. Hori saioaren edo dinamikaren hasieran irakasleak esan egin behar du. Talde txikietan xuxurlaria erabil daiteke.
- o Irakasleak azalduko du komunikazio era desberdinak erabili daitezkeela talde txikietan: talde batzuetan gaztelania erabiliko da bertan euskaldunen bat egon ala ez, beste batzuetan euskara, eta norbaitek egin dezake itzulpena ez dakitenentzat eta haiek gaztelaniaz arituko gara... Aukera guztiak izango dira ondo hartuak. Saiatuko gara pazientziatz eta umorez komunikazioa garatzen. Posible da gutxienez talde bat euskaraz arituko dela erabakitzea, euskara presente egongo dela bermatzeko.



KONTUAN HARTZEKOAK

- o Dinamikarako gaia esanguratsua izan behar da, ez da soilik elkar ezagutzeko. Bilera aurretik gurasoei galdetu ahal zaie zer tratatu nahi duten (adibidez, zein dira zuen ustez eskolako indarguneak, zer egin dezakegu gure artean hobeto ezagutzeko, zer jakin nahi dugu ikastetxeaz, nola ospatuko ditugu gure seme-alaben urtebetzeak...).
- o Ikasleek gonbidapena prestatu ahal dute familia bakoitzari entregatzeko.
- o Gurasoak bere umearen lekuan aukituko duen oparia geletan prestatu behar da. Opari bateria bat pentsatu daiteke, urtero ez dadin zerbait mekanikoa eta errepikakorra izan. Opari mota desberdinak izan daitezke mailako? Posible da gurasoek ere opari bat uztea umeari, argi utzi hasieratik opari hori bileran bertan egingo dela, ez dela aurrez ezer erosi behar. Opari hori egiteko materiala prestatuta izan behar da.
- o Saio guztien bukaeran balorazioa eskatu behar zaie bertaratutakoei. Aukera ugari daude: 1). Galdetegia; 2) Galderak: zerekin geratu zara?, zer gustatu zaizu gehien?, bilera mota honekin pozik zaude?, zer aldatuko zenuke? 3) Guraso guztiei hitza emanda, ahozko balorazioa: post-it banatan hitz bat, esaldi bat, emotikono bat...
- o Irakasleek ere haien balorazioa emango dute eta denona jasoko dute (balorazio guztiak talde eragilerarekin partekatuko dituzte)
- o Urtarrilean edo otsailean beste bilera bat egingo da. Bi faseko egitura izango du. Lehenengoan honako gaiarekin (30-40´): nola lan egiten dugun gelan. Bigarren fasearen dinamikaren gai posibleak (30-40´): zer moduz doa ikasturtea, zein kezka dauzkagu, zerekin gaude pozik...

HIZKUNTZA TRATAERA HEZKUNTZA KOMUNITATE EUSKALDUN ETA KULTURANIZTUNEAN

5. FORMATUA - JARDUERA



FAMILIEN ELKARTEKO BILERAK

- Bilerak euskaraz egingo dira.
- Aldi bereko itzulpena erabiliko da: telegram kanala edo xuxurlatzailea.

EZAUGARRIAK



- Bilerak euskaraz egingo dira.
- Aldi bereko itzulpena erabiliko da: telegram kanala edo xuxurlatzailea.

HELBURUA



- Ikastetxeko proiektuaren eta zerbitzuen jarraipena egitea, laguntza ematea eta informatuta egotea.
- Ikastetxearekiko gurasoen inplikazioa sustatzea, garatzea.
- Gurasoen arteko harremana eta elkarlana sustatzea.

ABANTAILAK



- Eskolako guraso guztien ordezkarien topalekua da. Euskaldunak ez direnek ere parte hartu ahal izango dute elkartean eta elkarteko bileretan.
- Akta jaso daiteke eta familiei banatu euskaraz eta gaztelaniaz (berehalako itzulpenak egiteko tresna onak daude: itzultzaile neuronalak, google translator...).

KONTUAN HARTZEKOAK



- Komeni da urtean bizpahiru jarduera partekatu diseinatzea familiak elkarrekin egon daitezen, nahiz eta jakin komunikazioa gaztelaniaz izango dela. Jarduerak: inguruko toki/mendi irteera, tailer bat (jostungintza, mekanika, ofimatika, sukaldaritza...), ekitadi kulturala (munduko ipuinak, tokiko kantak...).
- Bileretara etortzen ez direnen kezak, eskaerak eta ekarpenak jasotzeko kanalak bilatu: zubi-gurasoak, amen arteko harreman sarea... Aurrez aurreko elkarrizketak eta gonbidapen pertsonalak ere eraginkorrak dira beste baliabide batzuen aldean.

HIZKUNTZA TRATAERA HEZKUNTZA KOMUNITATE EUSKALDUN ETA KULTURANIZTUNEAN

6. FORMATUA - JARDUERA



GELAKO WHATSAPP/TELEGRAM TALDEAK

EZAUGARRIAK



- Soilik gurasoak daude gelako taldeetan, eta guraso ordezkariak kudeatzen du.
- Bi talde egin dira gela bakoitzean: euskaraz eta gaztelaniaz.
- Whatsapp arduradun bat dago gela bakoitzean, hizkuntzekin sor daitezkeen gora-beherak “atseginez” kudeatzeko.

ABANTAILAK



- Eskolako bilera bat erabil daiteke aplikazioak deskargatu eta erabiltzen trabatzeko. Edo beste modu bat aurkitu horretarako.
- Baliteke familia bakoitzak bere etxeko hizkuntza erabili ahal izatea.

HELBURUA



- Gelako gurasoen artean informazioa partekatzea.
- Zalantzak argitzea.
- Gauzak adostea.

KONTUAN HARTZEKOAK



- Telegram kanala jo da tresna egokiagotzat. Gelako ikasturte hasierako bileran azal dezake guraso ordezkaria
- 2022-2023 ikasturtean talde batzuk euskaraz soilik kudeatuko dira eta talde horien funtzionamendua ebaluatuko da. Zein talde izango dira?
- Posible da mezua euskaraz idaztea eta norberak bere hizkuntzara itzultzea teknologia digitalen laguntzarekin. Horretarako euskarazko mezuak zuzen eta batuaz idazten saiatu behar da.
- Zer egin gelako hizkuntza bat ez badago presente telegrameko hizkuntzen artean? Gaztelania erabil daiteke.
- Kontuan izan behar da itzulpenak ez direla perfektuak. Horretaz abisatu.
- Gerta daiteke beste hizkuntza batzuk erabiltzea? Arabiera, errumaniera...
- Gelako ordezkaria ez bada euskalduna, nola jokatu?

IKASTURTE HASIERAKO MEZUA. ADIBIDEA.

Kaixo denoi!

Hau gelako whatsapp da. Gelako kontuetarako erabiliko dugu soilik. [Eta hemen behar den guztia azalduko da].

Zaldibia herria eta Lardizabal eskola euskaraz bizi dira eta, aldi berean, denon arteko komunikazioa sustatu nahi dugu. Euskaraz dakitenak euskaraz arituko dira hemen, eta hori izango da kanal honetako hizkuntza nagusia. Posible da norbaitek euskarazko mezua itzultzea (gaztelaniara, edo arabierara, errumanierara...). Horrela ez bada, euskaraz ez dakitenek telefono aplikazio bat erabili ahal dute mezua itzultzeko. "Itzultzaile neuronal" aplikazioa baliagarria da euskaratik gaztelaniara itzultzeko. "Google translate" aplikazioa baliagarria da euskaratik hizkuntza askotara itzultzeko. Eskolako bilera batean lagunduko diogu elkarri aplikazio horiek deskargatzen eta erabiltzen, nola funtzionatzen duten ikasteko. Itzulpenak ez dira perfektuak baina laguntzen dute!

Nerea Agirre, Eneritzen ama, izango da talde honen moderatzailea.

Hurrengo mezuak aplikazio horiek erabilita egin dira.

Ondo izan eta laster arte!



IKASTURTE HASIERAKO MEZUA. ADIBIDEA.

¡Hola a todo el grupo!

Este es el whatsapp de la clase. Sólo lo usaremos para asuntos de la clase.

Quienes saben euskera utilizarán el euskera aquí, y ese será el idioma principal de este canal. Es posible que alguien traduzca el mensaje (castellano, o árabe, rumano...). De no ser así, quienes no hablen euskera pueden utilizar una aplicación telefónica para traducir el mensaje. La aplicación "Itzultzaile neuronal" es útil para traducir del euskera al castellano. La aplicación "Google translate" es útil para traducir del euskera a muchos idiomas. En una reunión escolar, nos ayudaremos mutuamente a descargar y usar estas aplicaciones para aprender cómo se usan. ¡Las traducciones no son perfectas pero ayudan!

Nerea Agirre, la madre de Eneritz, será la moderadora de este grupo.

(Esta traducción se ha realizado con la aplicación "google translate")

¡Un saludo y hasta pronto!



IKASTURTE HASIERAKO MEZUA. ADIBIDEA.



Bună tuturor!

Acesta este whatsapp-ul clasei. Îl vom folosi doar pentru afaceri de clasă.

Cei care știu bască vor folosi limba bască aici și aceasta va fi limba principală a acestui canal. Este posibil ca cineva să traducă mesajul (spaniolă sau arabă, română ...). Dacă nu, cei care nu vorbesc bască pot folosi o aplicație telefonică pentru a traduce mesajul. Aplicația „Itzultzaile neuronală” este utilă pentru traducerea din bască în spaniolă. Aplicația „Google translate” este utilă pentru traducerea din bască în multe limbi. La o ședință școlară, ne vom ajuta reciproc să descărcăm și să folosim aceste aplicații pentru a afla cum să le folosim. Traducerile nu sunt perfecte, dar ajută!

(Această traducere a fost făcută cu o aplicație)

Salutări și ne vedem în curând!

IKASTURTE HASIERAKO MEZUA. ADIBIDEA.



!مرحبا جميعا

.سنستخدمه فقط في فئة الأعمال . هذا هو الواتساب الخاص بالفئة

أولئك الذين يعرفون لغة الباسك سيستخدمون لغة الباسك هنا ، وستكون هذه هي اللغة الرئيسية إذا لم (...الإسبانية ، أو العربية ، أو الرومانية) يمكن لشخص ما أن يترجم الرسالة . لهذه القناة يكن الأمر كذلك ، فيمكن لأولئك الذين لا يتحدثون لغة الباسك استخدام تطبيق الهاتف لترجمة تطبيق . مفيد للترجمة من لغة الباسك إلى الإسبانية "Itzultzaile neuronală" تطبيق . الرسالة في اجتماع . مفيد في الترجمة من لغة الباسك إلى العديد من اللغات "Google translate" . المدرسة ، سنساعد بعضنا البعض في تنزيل هذه التطبيقات واستخدامها لمعرفة كيفية استخدامها !الترجمات ليست مثالية لكنها تساعد

(تم إجراء هذه الترجمة باستخدام أحد التطبيقات)

!تحياتي ونراكم قريبا

HIZKUNTZA TRATAERA HEZKUNTZA KOMUNITATE EUSKALDUN ETA KULTURANIZTUNEAN

7. FORMATUA - JARDUERA



GELAKO DIFUSIO KANALA TELEGRAMEN

EZAUGARRIAK



- Irakasleak mezuak igorriko ditu eta hartzaileek ezin izango dute erantzun.
- Mezuak euskaraz bidaliko dira. Gurasoek haien hizkuntzara itzultzeko moduan konfiguratu ahal dute telegram kanala.

ABANTAILAK



- Familia bakoitzak bere etxeko hizkuntza erabili ahal du.
- Posta elektronikoa baino eraginkorragoa izan daiteke.

HELBURUA



- Irakasleek gelako gurasoei informazioa helaraztea azkar eta modu eraginkorren.

KONTUAN HARTZEKOAK



- Eskolako bilera bat erabil daiteke aplikazioak deskargatu eta erabiltzen trabatzeke. Edo beste modu bat aurkitu horretarako.
- Itzultzaileak oraindik ez ditu hizkuntza guztietara itzultzen. Adibidez, errumanieraz ez du funtzionatzen.
- Ebaluatu egin behar da.

HIZKUNTZA TRATAERA HEZKUNTZA KOMUNITATE EUSKALDUN ETA KULTURANIZTUNEAN

8. FORMATUA - JARDUERA



FAMILIENTZAKO IDATZIZKO OHARRAK

EZAUGARRIAK



- o Paperean bidalitako oharrak euskaraz bidaltzen dira familia euskaldunen etxeetara eta euskaraz eta gaztelaniaz euskaldunak ez diren familien etxeetara, familiek hautatu duten moduan.

ABANTAILAK



- o Hizkuntza nagusia euskara izan dadin bermatzen du.
- o Euskaraz ez dakitenek gaztelaniaz ere informazioa jasotzen dutela bermatzen du.

HELBURUA



- o Gelako gurasoei informazioa helaraztea.

KONTUAN HARTZEKOAK



- o Aukera ikusten da beste modu batean jokatzeko?

HIZKUNTZA TRATAERA HEZKUNTZA KOMUNITATE EUSKALDUN ETA KULTURANIZTUNEAN

9. FORMATUA - JARDUERA



PROZESUAREN INGURUKO INFORMAZIOA ZABALTZEA

EZAUGARRIAK



- o Eragile bat edo batzuk arduratzen dira komunikabide edota kanal batzuetan prozesuaren inguruko informazioa zabaltzeaz.

ABANTAILAK



- o Informazioa partekatzeko eta diskurtso partekatu bat eraikitze aukera eskaintzen du.
- o Prozesuari garrantzia eta zilegitasuna ematen dio eta bertan parte hartzeko aukera sustatzen du.

HELBURUA



- o Hezkuntza komunitateari eta herriari prozesuaren inguruko informazioa helaraztea.
- o Bilera batzuetara deialdia helaraztea.

KONTUAN HARTZEKOAK



- o Informazio-kanalak zeintzuk diren erabakiko da.
- o Noren ardura den erabakiko da.
- o Saioetan norbaitek egingo ditu argazkiak ondoren zabalkundea egin ahal izateko.

BESTE ILDO POSIBLE BATZUK



- Umeein lanketa egitea. Aukerak:
 - Ze prozesu egiten ari garen azaltzea (LH 5. eta 6. mailan?)
 - Eskolako hizkuntzak zein diren denon artean katalogo baten erregistratzea.
 - Eskolako hizkuntzekiko jarrera abegikorak lantzea.
 - Etxeko hizkuntza ondo ikastearen eta erabiltzen jarraitzearen garrantzia lantzea.
- Dendariekin, tabernariekin... lanketa egitea ume guztiakin euskaraz aritzeko. Aukerak: kanpainia orokor bat, kanpainia pertsonalizatua...
- Eskolako web gunea, google translate sakatuta, beste hizkuntza batean nola jarri gurasoei irakastea.
- Euskaraz ez dakien jendearen iritzia eskatzea. Posible litzateke galdeketa bat egitea ikasturte bukaeran aurtengo proiektuaren inguruan.
- ...



Formatuen zentzua eta balioa

- Harremanen garapena bilatzea.
- Inplementazio tresnak izatea.
- Urratsak ematen laguntzea.
- Irekiak, malguak eta moldagarriak izatea.
- Ardurak banatzeko eta denboran antolatzeko aukera eskaintzea.



Hurrengo urratsak

- Fintze urratsak
- Finkatze urratsak
- Hedatze urratsak
- Ahalduntze urratsak